

GIZALEGEZKO LANAREN ALDEKO MUNDUKO EGUNA
2020.eko urriaren 7a

Anai-arreba maiteok. Urriaren 7an, gizalegezko lanaren aldeko munduko eguna ospatuko dogu. Hauxe inoan Frantzisko Aita Santuak joan dan maiatzaren 1eko homilian: *“Lanean ari dan norbaiten aurkako edozein bidegabekeria, giza duintasunaren aurkako gehiegikeria da (...) Benetan ederra da Jainkoak emoten deuskun bokazinoa: sortu, bir-sortu, lan egin. Baina hori baldintzak zuzenak diranean eta gizon eta emakumearen duintasuna errespetatzen danean baino ezin da egin”.*

Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) eta era askotako gizarte mobimentuek sustatuta, Eleizako hainbat erakundek **Gizalegezko Lanaren aldeko Munduko Eguna** ospatuko dabe datorren urriaren 7an, hain zuzen be, askotariko jarduera publiko garatuz, lanaren duintasunaren funtsezko garrantzia agertzera emoteko.

Jainkoak bere seme eta alabentzat amesten dauan lez, senide-maitasunean bizi dan gizartea eraikitzeko, ezinbestekoa da desbardintasun sakonak saihestea eta makina bat norbanako eta gizatalde baztertuta edo pobretasunera kondenatuta geratzeko arriskua gainditzea. Lan duinerako eta garapen profesional egokirako aukerak sustatzea da helburu hau lortzeko bitartekorik eraginkorrenetakoa. Gizarte krisiek, esate baterako pandemiak eragin dauanak, argi eta garbi erakusten dabe askotarikoak eta anitzak dirala laneko baldintzetan eta gizarte eskubideetan ikusi daikeguzan egoerak eta arriskuak. Anitza da, baita be, gizatalde batzuek ala besteek euren aldarrikapenak egiteko daben gaitasuna.

Gaurkotasunez beteta dago 2011n, *“Ekonomia gizakien esanetara”* goiburuagaz kaleratu genduan Pastoral Idazkia. Azkenean, hauxe esaten zan: *“dei egin nahi izan diegu borondate oneko pertsona guztiei, gizarte eragile eta erakundeei eta administrazio publikoei, era bateratu eta solidarioan krisiari irtenbidea aurki diezaioten; gure gizartearen garapenerako oinarri etiko sendoak eraiki ditzaten; gizalegezko enplegua susta dezaten eta makalenak eta krisiak gehien astindu dituenak defendatzen ahalegin daitezen, gizarte zuzentasunaren eskakizun eta froga bezala”* (41. zenb.).

Eskura dogun lanaren kalidatea hobetzen ahalegintzea, Jesusek inguruari atsekabetuen beharrianetatik begiratzeko egiten deuskun deiari erantzuteko bidea da. Covid-19ak makina bat lagun lan barik itzi eta gizarte arlo zabaletako lan-baldintzak ahultzea ekarri daike. Sinistedunok, borondate oneko gizon eta emakume guztiekin alkarlanean, geure esku dagoan guztia egin behar dogu giza alkartea gero eta batuago egon daiten eta horretarako ezinbestekoa da lan duina –gizartearen zutabe nagusienetakoa, zaintzea eta sustatzea. Gure arreta eta babesa merezi dauan hainbat ekimen dago, Eleiza barruan eta Eleizatik kanpo. Jainkoaren Herria osatzen dogunok geure egiten dogu lanaren duintasuna arduraz, ilusinoz eta itxaropenez defendatzeko egitekoa.

Mariak lagundu deigula lan duina sustatzen, Jainkoaren Erreinua gure artean agertzera emongo dauan senide-maitasunean oinarritutako gizartea eraiki daigun.

JORNADA MUNDIAL POR EL TRABAJO DECENTE
7 de octubre de 2020

Queridos hermanos y hermanas. El 7 de octubre celebraremos la jornada mundial por el trabajo decente. El Papa Francisco, en la homilía pronunciada el pasado primero de mayo afirmaba: *“Toda injusticia que se comete contra una persona que trabaja es un atropello a la dignidad humana (...) la vocación que Dios nos da es muy hermosa: crear, re-crear, trabajar. Pero esto puede hacerse cuando las condiciones son justas y se respeta la dignidad de la persona”*.

Promovida por la Organización Internacional del Trabajo (OIT) y un amplio abanico de movimientos sociales, diversas organizaciones de Iglesia conmemoran el 7 de octubre la **Jornada Mundial por el Trabajo Decente**. Lo hacen desarrollando diversas actividades públicas cuya finalidad es visibilizar la importancia esencial de la dignidad del trabajo.

Una sociedad fraterna, tal y como la que Dios sueña para sus hijos e hijas, sólo puede construirse evitando desigualdades profundas y superando el riesgo de que importantes sectores queden excluidos o condenados a la pobreza. Y uno de los instrumentos más eficaces para lograr este objetivo consiste en promover oportunidades de empleo digno y desarrollo profesional adecuado. Las crisis sociales, como la que actualmente ha generado la pandemia, ponen claramente de manifiesto la enorme diversidad de situaciones y riesgos que, en materia de condiciones y derechos laborales, se dan entre nosotros. También es plural la capacidad de los distintos colectivos de defender sus reivindicaciones.

Mantiene toda su vigencia nuestra Carta Pastoral de 2011 titulada *“Una economía al servicio de las personas”* que finalizaba *“con una llamada a todas las personas de buena voluntad, agentes e instituciones sociales y administraciones públicas para que busquen de manera conjunta y solidaria una salida a la crisis; construyan unas bases éticas firmes para el desarrollo de nuestra sociedad; promuevan el empleo digno; y se esfuercen por defender a los más débiles y golpeados por la crisis, como exigencia y prueba de la justicia social ”* (nº 40).

Empeñarnos en mejorar la calidad del trabajo disponible es un modo de responder a la invitación de Jesús a mirar la realidad desde las necesidades de los afligidos. El Covid-19 podría dejar a muchos sin empleo y debilitar las condiciones de trabajo de amplios sectores sociales. Los creyentes, colaborando con todas las personas de buena voluntad, debemos hacer lo posible para que la comunidad humana esté cada vez mejor integrada, para lo que es esencial cuidar y promover el trabajo digno como uno de sus pilares. Hay muchas iniciativas, dentro y fuera de la Iglesia, que merecen nuestra atención y nuestro apoyo. Quienes formamos el Pueblo de Dios asumimos la tarea de defender la dignidad del trabajo con responsabilidad, ilusión y esperanza.

Que María nos ayude a promover el trabajo digno para construir una sociedad fraterna que haga presente el Reino de Dios entre nosotros. Con gran afecto.